

B

BARREN

TOKIKOM



Amairik gabeko lana

ARANBURU



BITXIDENDA

ARANBURU BITXIDENDAKO GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA

250 €-ko

balea bitxi dendan
gastatzeko

Zbkia.: 372

Ordezko zbkia.: 1.632



2. SARIA

250 €-ko

balea bitxi dendan
gastatzeko

Zbkia.: 2.788

Ordezko zbkia.: 116

San Frantzisko, 26 Tel./faxes: 943 742 535



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
BERRIAI
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA
ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
+ Traumatologia.
+ Estetika (zelulitisa, es-triak)

Osasunerako ariketa agin-dua
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
(erabilitazioa)
3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekani-ka (kalak, ergonomia bizikle-tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628



Jose Luis
Azpillaga

Urte berri on, Amaia! Estreinatu dugu beste urte bat, eta dagoeneko badira mordoxka bat, ezta? Hasi da urtearen gupila jiraka, eta hor etorriko dira berriz ere hainbat ekitaldi eta ospakizun (San Anton dela, San Sebastian dela, sagardodenboraldiaren irekiera, inauteriak, KO-

RRIKA, eta abar) egutegiaren ezinbesteko sokari lotuta. Gure txoko honetan ere azaldu gara berriro ere, eta kezka izango dugu (nik bai behintzat) esandakoa lehendik ere esana ote dugun. Argi dut zahartzen ari naizela, eta, ni behinik behin, horrexek sentiarazten nau bazuetan zahar, alegia, zerbait esan edo entzun eta esan-entzundako hori beste noizbait ere esan-entzuna ote dudan susmatzeak, edota norbait ezagutu eta, handik pixka batera, aurpegi hori beste noizbait ikusi izana uste izateak. Ez al duzu inoiz horrelakorik sentitu, Amaia?

“Ez ote da gertatuko dena aldatzen dela gero denak berdin jarrai dezan?”

Edonola ere, 2015. urte honetan alda-haize gogorak joko duela dirudi; izan ere, hauteskunde-urtea dugu: udal-hauteskundeak izango ditugu maiatzean eta orokorrak azaro aldera, eta aurreikuspenak eta iragarpenak betez gero, badirudi panorama politikoa dezente aldatuko dela, Podemos alderdia agertu delako batik bat. Ongi etorriak al daketak, onerako badira, badago premia-eta: krisia dela, ustelkeria dela, presoen egoera dela, erabakitze eskubidea dela..., ez dira gutxi, ez horixe, astindu baten beharrean dauden auziak.

Hala ere, azken boladan Ahal Duguko buruzagiek esandakoak entzun eta gero, nola aldendu zenbait ideia lehen ere entzunak ditudalako sentsazioa? Ez ote da gertatuko, politikan askotan bezala, dena aldatzen dela gero denak berdin jarrai dezan? Sinesten hasita nago kanpotik datozen aldaketak baino garrantzitsuagoak direla norberaren-gandik hasten direnak. Zer deritzozu, Amaia?



Amaia
Larrañaga

Urte berri on, zeuri ere J.Luis, baita zuri ere, irakurle! Ene, J.Luis, zeuk diozun moduan, zahartzen ari zarela nago bai, zeren aipatzen dituzun esan-entzunak ezagunak egiten baitzaizkit neuri ere, eta, batez ere, norberak esaten duenean: “Hau lehenago ere esana dizuet, baina berriz ere...”, *malo!* Horrek inguruko nagusien joera gogorarazten dit eta neu ere bide beretik nabilela ohartarazi, baina hala da, ez dago besterik, hortaz, jarrai diezaigun egutegiari, diozun bezala, urteak badakar-eta ekitaldirik, besteak beste, bihar bertan Sarek Bilbon antolatutako presoen dispersioa amaitzekoa; martxoaren

19tik 29ra (Elgoibarren 23an) Euskal Herri osoan zehar euskararen eta AE-Kren aldeko Korrika 19, zeinak euskahaldundu gaitezen aldarrikatuko duen, hau da, ahal dugun neurrian, gure herria euskalduntzen ahalegin gaitezen; ekainaren 20an Gure Esku Dagok erabakitze eskubidearen alde antolatzen diharduen ekitaldiak; Nafarroako, Arabako eta Gipuzkoako bertsolari txapelketak...

“Gero eta argiago dut zerbaiten alde jarduteko ez dugula inori begira egon beharrik”

Hauetako gehienak nazio mailan egingo direnak eta hemengo komunikabideetan oihartzuna izango dutenak, baina ezin ahaztu herri zein auzo mailan egingo direnak, askoz hurbilagoko sentitzen ditugunak, sarri, era batera edo bestera partaide izaten baikara, egiten dugun hori geure konbentzimenduz eta herriaren onerako egiten dugulako. Izan ere, eta, zure azken galderari erantzuteko, gero eta argiago ikusten dut zerbaiten alde jarduteko ez dugula inori begira egon beharrik; alegia, norberak eman behar dituela pausoak bai nongo porruak jango dituen, bai zein liburu irakurriko duen... erabakitze, azken finean, nire ustez, hauxe baita nazioa egiteko modurik eraginkorrena.

Gure amama Isidrak esan ohi zuen –aspaldiko kontuak, oster, J.Luis– pezetek egiten zutela ogerlekoa; beraz, durorik nahi badugu, bil gaitezen pezeta asko eta ez egon inork duroa osatu zain!

B

BARREN

BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

- Euskal Herria eta Espainia: **27€** (bazkideek **21€**)
- Europa: **39€** (bazkideek **30€**)
- Europatik kanpo: **51€** (bazkideek **40€**)

Harremanetarako: 943 744 112 (Ainhua) edo barren@elgoibarkoizarra.com

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikunak.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikunak. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

'Now Euskal Herria!'

Arrazoi sendo asko dago, juridikoak, soziologikoak, politikoak, baina batez ere gizalegezkoak, dispersioa berehala bukatzeko. Arrazoi horiei sentimenduak gehitzera gonbidatzen zaituztegu, eta kaleetan adieraztera. Elkartasuna, maitasuna, babesa; aldarrikapen tinkoa dispersioa mantentzean tematuta direnei; munduari, euskal jendartearen gehiengo zabalaren nahi sakona.

Batu ditzagun arrazoiak, bihotzak eta eskuak mezu argi hau lau haizeetara zabaltzeko:

Now, Euskal Herrira, guk argi dugu:

Dispersioa bukatzea beharrezkoa da, posible da. Orain, *maintenant*, ahora, *now!* Sinets dezagun gure indarrean, sinets dezagun guztion ekarpena, txikia ala handia izan, ezinbestekoa dela sufrimendua ezabatzeko eta konfrontazioa amaitzeko bidean oinarri sendoak ezartzeko eta esperantzari eta baita konponbideari ere beste lehio bat irekitzeko.

Bilbotik mundura hedatuko den mezuak zure ahotsa ere behar du! Bihar, Bilbon, 17:30ean bi puntu ezberdinetatik abiatuko gara (udaletxetik eta La Casillatik) Zabalburu plazan elkartzeko. Mobilizazio jendetsu eta parte-hartzailea izango da, jendartearen aniztasunean oinarritutakoa, non pertsonok izango garen protagonista aktiboak. Mezu garbi bat zabaltzeko mobilizazioa izango da: dispersioa amaituko dugu.

Elgoibartik autobusak irtengo dira, arratsaldeko lauretan plazatik.

Oraindik izena eman ez baduzu, aukera ondoko leku hauetan: Jai Alai, Iturri, Tantaka eta Iriondo tabernetan.

Munduak entzun beza! Euskal presoak Euskal Herrira orain, *now*, *maintenant*, *ahora!*

Elgoibarko SARE C

Eskerrik asko!

Gure herrian bildu diren elikagai guztiak Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran duen biltegira bidali dira. Handik, Elgoibar-Nagusilan bezalako erakundeek bitartez, elikagaiak herri bakoitzeko familiei helaraziko zaizkie. Horren guztiorren harira, Elgoibarko Gizarteratze Mahaia osatzen dugun erakundeok (SARTU, Lanbide, Nagusilan, Kalamua Gura-

so Elkarte, Elgoibarko Caritas, Pobreziaren Kontrako Plataforma, Stop Desahucios, Elgoibarko Gurutze Gorria eta Elgoibarko Udala) eskerrak eman nahi dizkiegu 2014 urteko bilketa handian parte hartu duten pertsona guztiei.

Mila esker ahal izan dutena eman duten pertsona guzti-guztietan; izan ere, horri esker, guztion artean, gutxi gorabehera 9.980 kilo oinarritzko elikagai jaso ahal izan ditugu gure udalerrian.

Baina, batik bat, eskerrak eman nahi dizkiegu beraien denboraren zati bat, irribarretsu eta ilusioz beterik, eskaini diguten pertsona guztietan. Gainera, esan, hainbat kasutan, laguntzen egon diren adingabeekin baloreak landu direla, proiektu honek Elgoibarren funtzionatu ahal izan dezan.

Leen, Iñaki, Roberto, Jose Miguel, Sonia, Juan, Elo, Amagoia, Naia, Jone, Maite, Jose Antonio, Andrea, Julian, Simone, Silvia, Julian, Igor, Nerea, Unax, Iñaki, Coro, Ana M^a, Luis, Inma, Iria, Itziar, Intza, Beñat, Nere, Garazi, Blanca, Ion, Lourdes, Yune eta Idoia, eskerrik, beraz, inolako ordainik eskatu gabe, zeregina honetarako zuen bizitzaren zati bat eskaini diguzuelako.

Gizarteratze Mahaia C

Erretratu zaharra



1921

Aste honetako erretratu zaharra Mari Fran eta Maite Unzuetak ekarri digute BARRENERA, eta Sabin Osoro Unzuetak eman ditu erretratuaren nondik norakoak. San Bartolome jaietan ateratako argazkia da, Txankakoako zubipean, txanalen lasterketa ekitaldian. Hiru-kote horretan ezkerrekoa ez dute ezagutzen, erdikoa Santi Iriondo da (Santi Apraiz edo Santi Arrixa bezala ezaguna, Angelo Iriondoren aita zena. Angelok esandakoaren arabera, arrantzale trebea zen aita, eta ibaian arrantzatutako arrainak Eibarren ere saltzen zituen). Eskumakoa Isidoro Unzueta da, Fermin Unzueta Lausagarreta eta Engrazia Unzueta Etxanizen semea, eta Sabin Osoro Unzuetaoren osaba.

Zubi gainean herritar asko ikusten da lasterketari begira. Garai hartan ibaian ikuskizun asko egoten ziren: txanalen arteko karrerak, arrantza edo igeri lehiaketak, kukainak, eta Luisen Egunean uretako jolasak ere egoten ziren. Geroago ere, 1953ko San Bartolome jaietako programan ere sartu zituzten horrelakoak. Ibaian nahikoa ur zegoen garai hartan, Belokiren zentral elektrikoarentzako zegoen presagatik. Goikoerota zubitik San Pedro fabrikaraino hiru presa zeuden, eta ibaia gurutzatzeko gunek bakarrik Txankakoako zubia zenez, inguru horretan txanal mordoxka bat egoten zen ibai ertzean. Arrain ugari zegoen ibaian garai hartan, loianak, angirak eta barbuak, batez ere, eta txanalak arrantzarako ere erabiltzen zituzten herritarrek. Arrainak etxean jaten zituzten, baina auzoan eta Eibarren ere saltzen zituzten. 1953ko ufalak Maalako zubia eraman zuenean txanalak erabiltzen zituzten Urazandi aldeko lantegietara joateko. Gerardo Arriola *Pitxirik* ere pelotak ibaitik jasotzeko txanala erabiltzen zuen. Etxeberriatarrek, Ibarluzea familiak, Moskotetarrek eta beste hainbatek ere txanalak zituzten. Elgoibarren, beraz, garrantzia handia izan zuen txanalak.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON
VILARCHAO**

San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 670

DEKORAZIOA

Karpo eta bameko estaldura
Zolak eratzia
Lantekura: egur, aluminio, PVC
Pintura orokorra



Peruko haurrei laguntzeko sortutako Miski gobernuz kanpoko erakundeak amaitutzat eman du bere ibilbidea

Hamabost urte bete dira Gemma Agirregomezkortak Perura lehenengo bisita egin zuenetik

Duela hamabost urte sortu zuten Miski gobernuz kanpoko erakundeak, Peruko umeei laguntzeko. Sei lagunek sortu zuten elkarte, baina Gemma Agirregomezkorta izan da elkartearen aurpegia urte hauetan guztietan, eta bera eta beste bi lagunek eutsi diote azkenera arte elkarteari. 2000. urtean bidaiatu zuen aurrenekoz Perura Gemma Agirregomezkortak eta otsailen hamaseigarrenegoz joango da Cuscora (Peru). Urtean zehar errifan salmentatik bildutako dirua zuzenean banatu izan du Agirregomezkortak han, bitartekaririk gabe.

Agur esateko ordua iritsi dela erabaki du, baina, Miskik. Hamabost urtean egingo dako lana "oso gogorra", baina aldi berean, "oso esker onekoa" izan dela nabarmendu dute. 500 haur eta gazte inguruk jaso dute urteotan Miskiren laguntza eta babesa, eta horietako asko lanean ari dira gaur, ikasketak amaituta. Miski, baina,



desegin dute. Gemma Agirregomezkorta presidenteak erretiroa hartzea erabaki du, eta hori izan da arrazoietakoa bat, baina ez bakarria, hala ere. Krisiak ere eragin dio gobernuz kanpoko erakunde honi. Peruko haurrak babesean hartzen dituztenen kopuruak behera egin du eta errifan salmenta ere apaldu da. Horrek guz-

tiak egiten du Miski bideragarria ez izatea orain, agur-oharrea jaso dutenez. Ohar beraren bidez, eskerrak eman dizkiete urte guzti hauetan lagundu dieten elkarte, enpresa eta norbanako guztiei, eta gogorarazi die Miskiren 2014ko kanpaina ez dela amaitu oraindik, otsailaren 25ean egingo baitute hurrengo bidaiak Cuzcora.

Julian Villena eta Pello Rubio 'Txillarre' saritu dituzte Debako Soro Ferian



Julian Villena, salmenta postuan.

Urtarrilaren 3an ospatu zuten Deban Soro Feria eguna, eta aurten, bi elgoibartar saritu dituzte. Pello Rubio *Txillarrek* irabazi zuen barazki lehiaketa eta Julian Villenak bigarren saria eskuratu zuen ezti-lehiaketan. Bigarren postu horri esker, gainera, Zegaman jokatu den Gipuzkoako ezti-lehiaketarako sailkatu zen Villena. Guztira, zortzi ezti-gilek parte hartu zuten lehiaketan.

Urtarrilaren 17ra arte egongo da ikusgai jaiotza mekanikoa

Urtarrilaren 17ra arte egongo da Elgoibarren jaiotza mekanikoa bisitatzeko aukera. Makina-erremintaren mendeurrena izan da 2014a, eta hori aitzaki hartuta, figura berri bat gehitu zuten Elgojaitzakok: tornugilea.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, Elgoibarren

Gipuzkoako odol bankua gaur etorriko da Elgoibarrera, eta 18:30etik aurrera odol ateratzeak egingo dituzte, odol emaleen lokalean (Osasun Zentroaren albo batean, Pedro Migel Urruzuno kalean). Elkarteko arduradunek gazteei dei egin diete, bereziki, odola ematera joan daitezten, eta ohartarazi dute odol premia handia dagoela.

Tailerra **Osasunaren gaineko tailerra**

Hilaren 24an hasiko da tailerra, *Bi sekretu zure osasuna berreskuratzeko eta pisua galtzeko* izenburuko hitzaldiarekin, eta apirilaren 4an bukatuko da. Lau saio izango dira guztira: urtarrilaren 24an, otsailaren 14an, martxoaren 14an eta apirilaren 4an, eta saio guztiek hiru orduko iraupena izango dute, 10:00etan hasi eta 13:00ak arte. Ordu t'erdiko hitzaldi teorikoarekin hasiko dituzte saioak, eta esperientziak trukatzeko baliatuko dute gainerako denbora. Aliza Ochandianok zuzenduko ditu eskolak. Saio bakoitzeko 30 euro ordaindu beharko dira, eta tailer osorako izena ematen duenak 110 euro ordaindu beharko ditu. Izena emateko eta informazio gehiagorako: 943 743 206 (Pitxintxu). Plazak mugatuak direla jakinarazi dute antolatzaileek, eta beraz, komeni da interesatuta daudenek lehenbailehen ematea izena.

Ikastaroa **'Bizitzarako psikologia praktikoa'**

Bizitzarako psikologia praktikoa izeneko ikastaroa antolatu du Defibel Debarrenako fibromialgia elkarteak urtarriletik ekainera bitarterako. Ikastaroa Eibarren izango da, Portaleako ikastaro gelan, eta Ana Perez Lizarraga psikologo eta psikoterapeutak emango du. Urtarrilaren 27an hasiko da eta ekainaren 30ean amaitu. Eskolak hileko azken asteartetan izango dira, 16:30etik 18:30era. Informazio gehiagorako edo izena emateko: 678 068 959 / 943 700 828. Asoc.defibel@gmail.com.

Apustua **Astoa nagusi**



Apustu bitxia jokatu zuten Elgoibarren domekan Otsourtiako *Darko* izeneko astoak eta Itziarko gizonezkoen giza-proba taldeak. 550 kiloko harriari tiraka nork plaza gehiago egin jokatu zuten, eta astoa nagusitu zen. *Darkok*, zortzi urteko astoak, 104 plaza osatu zituen, eta Itziarko mutilek 96 plaza, zinta bat eta 1,1 metro egin zituzten harriari tiraka.

Miskiren Gabonetako zozketako zenbaki saridunak

Miski Gobernuz Kanpoko Era-kundeak jakinarazi ditu Gabonetako zozketako zenbaki saridunak. 3.775 zenbakiaren jabeak, Aiara Garciak, eskuratu du otarra, eta 0993 zenbakiaren jabeak, Amelia Martinezek, Londres hoteleko egonaldia.

CD Elgoibarrek errifa saridunen berri eman du

CD Elgoibarrek egin du errifen zozketa eta honako zenbakiak dira saridunak: Sari nagusia: 21834 (Ordezkoak: 13896 / 22072). Bigarren saria: 04746 (19826 / 07425).

Ikastolako Gabonetako loterian, bueltakoa

Elgoibar Ikastolako Gabonetako loterian botatakoa jasotzea egokitu da. Kobratzeko ikastolara bertara jo behar da, urtarrilaren 30a baino lehen. Orduategia: goizez, 8:30-9:30 / 12:00-13:00, eta arratsaldez, 16:00-17:00.

Marisko-otarrak badu jabea

Urtero legez, mariskoz betetako otarra zozkatu zuten Gabon Zahar azoka egunean, presoen eta iheslarien alde. 8.414 zenbakia irten zen saridun, baina bi eguneko epean jabea agertu ez zenez ordezkoko zenbakiaren jabeari eman zioten marisko-otarra. Argazkian, Itziar Ibabe eta, sariduna, Erroka Castrillejo.



25 urte herritarrei laguntzen



25 urte egin ditu etenik gabe Elgoibarko Gurutze Gorriak, eta abenduaren 20an egin zuten urteurreneko ospakizuna, Musika Eskolako auditorioan. Gurutze Gorriko boluntarioek, Udal Agintariek eta hainbat herritarrek hartu zuten parte ekitaldian, eta besteak beste, azken urteotan Gipuzkoako Gurutze Gorriko lehendakari izan den Enrique Samaniego omendu zuten. 30 bat boluntariok osatzen dute Elgoibarko Gurutze Gorria, eta horietako birekin egin du berba **BARRENEK**: Joseba Osoro eta Sonia Rodriguezek azaldu dituzte elkartearen nondik norakoak.

Ainhoa Andonegi



Elgoibarko Gurutze Gorriko kideak, sanbartolomeetan.

Henry Dunant (1828-1929) merkataritza suitzarrak sortu zuen Gurutze Gorria, 1858an Italiako iparraldera, Solferino ingurura, egin zuen bidaia baten ostean. Han, gudan zeuden Frantziako, Austriako eta Sardinia armadak. Dunant hara iritsi zen gauean 40.000 zauritu izan ziren, eta haiei laguntzeko boluntario talde bat batu zuen. Pentsamoldeak eta iritziak alde batera utzita, zauritu guztiei laguntzea zen asmoa. Hura izan zen Gurutze Gorriaren hastapena Europan, baina ofizialki 1963an eratu zuten taldea. Handik urte gutxira, 1873an hain zuzen ere, Elgoibarko Gurutze Gorria sortu zuten. Pedro Miguel Urruzuno izan zen elkarteko lehenengo lehendakaria, eta gaur egun bezala, boluntario talde batekin ekin zion ibilbideari. Garai hartan Gipuzkoako herri askotan sortu zituzten Gurutze Gorriaren taldeak, baina urteak aurrera joan ahala, talde haietako asko bertan behera geratu ziren, Elgoibarko tartean. 1989an ekin zioten berriro ere lanari, eta ordutik etenik gabe jardun dute gaur arte.

25 urtean dihardute premian direnei laguntzen, boluntario. 30 bat lagunek osatzen dute Elgoibarko Gurutze Gorria, eta den-denak dira beharrezkoak. Joseba Osoro elgoibartarra da boluntario horietako bat. 1997an hasi zen Gurutze Gorrian kolaboratzen, eta argi esan du lan hori betetzeko "gogoa" edukitzea nahikoa dela. Anbulantzia irretetako titulu bereziren bat behar da, baina anbulantzia zerbitzua Gurutze Gorriaren arlo bat baino ez da. Beraz, inongo ikasketarik ez duten

herritarrek betetzeko moduko lan asko dago Gurutze Gorrian. Sonia Rodriguezek ere 20 urte daramatza elkartean, eta denetarik egitea tokatu zaio urte horietan. 15 urterekin hasi zen, inongo esperentziarik gabe. Hainbat ikastaro egin zituen, eta 18 urte zituenean atera zuen ambulanzian ibiltzeko behar den titulua. “Gizonezkoak 16 urterekin hasten ziren ambulanzian irteten, baina emakumeok 18ra arte itxaron behar genuen”, esan du. Zorionez, gaur egun egoera hori parekatu dela adierazi dute.

Elgoibarko Gurutze Gorriak Elgoibar eta Soraluzen ematen du zerbitzua, baina beharra dagoenean bailara osoan edota Gipuzkoan zehar ere jarduten dute lanean. SOS Deiak erakundearekin koordinatuta aritzen dira, eta haiek erabakitzen dute leku bakoitza zein unitate bidali behar duten. Gurutze Gorria erakunde independentea da, baina tokian tokiko administrazioarekin lan egiten du, dela Udalarekin, Jauriaritzarekin edota Foru Aldundiarekin. Diru-laguntzak jasotzen dituzte erakundeetatik, baina bereziki, bazkideek ordaintzen dituzten kuoten bitartez finantzatzeko da. Eta Gurutze Gorriko langileek ez dute kobratzen. Zazpi oinarri filosofiko ditu Gurutze Gorriak, eta horixe da printzipioetako bat: borondatezko lana. Borondatezko lanak eusten dio erakundeari, eta langileek badakite bolondres sartzeko direla erakundearen. Gurutze Gorrian lan egiteak, beraz, ez du dirurik ematen, baina satisfazio izugarria ematen du. Hala adierazi dute Joseba Osoro eta Sonia Rodriguez elgoibartarrek. Pertsona guztiei laguntzen zaie, ideologia, arraza edo dena delakoa kontuan izan gabe. “Gurutze Gorriarentzat bizilagun guztiak berdinak dira, eta laguntza eske datorren orori laguntzen diogu”, esan dute.

Atsedetik gabeko lana

Ekitaldiak non, Gurutze Gorrikoak han. Atsedetik gabeko lana da Gurutze Gorriarena; jai egunik ez dago. Jendearekin egiten dute lan, herritarren zerbitzura daude urteko egun guztietan eta eguneko ordu guztietan. Sanbartolomeetako goitibehera jaitsieran, sokamuturrean, herri krosetan, Juan Mugertza krosetan... Herritarrek festa giroan dauden orotan, Gurutze Gorrikoak lanean ibiltzen dira, eta askotan egoera “gogorak” bizi behar izaten dituzte. “Istripuetan une zailak bizi izaten dira, eta tartean umeren bat baldin bada



Gurutze Gorrikoak sokamuturrean, kolpe bat hartu duen gazteari laguntzen.

zauritua are eta gogorragoa egiten da”, esan du Soniak. Ama da bera, eta ama izatea zer den ezagutu duenetik, umeak sufritzen ikustea egiten zaio gogorrena. Adinekoak gaixo ikustea ere ez zaie samurra egiten, baina biek esan dute hori bizitza legea dela eta beste modu batera egiten dietela aurre egoera horiei. Dena dela, une gogorak baino satisfazio egoerak gehiago izaten dira Gurutze Gorrian, eta besteei laguntze horrek bete egiten ditu. “Satisfazio pertsonala da”, adierazi dute. Jostailuen Gabonetako kanpaina jarri dute adibidetzat. Buruhauste handiak izaten dituzte, Gurutze Gorriak ballabide urriak dituelako eta denei laguntzea batzuetan ezinezkoa izaten delako, baina beharra duten umei jostailuak eman eta haien irribarrea ikustea buruhauste guztiak ahazten laguntzen die: “Jende askok dauka beharra, uste dugunak baino gehiagok, eta uste ez dugun jendea da, gainera”. Elgoibar herri solidarioa dela nabarmendu dute, eta aurten bereziki, jostailu asko eta berriak jaso dituzte. “Kanpaina hau ez dugu egiten etxeko jostailu zaharrei irteera emateko, baizik eta beharra duten familiei laguntzeko”.

Beste hainbat zereginen artean, adine-

koei etxetik irteten ere laguntzen diete: “Elgoibarren igogailurik gabeko etxe asko dago, eta emakume bat 25 urtez egon zen etxetik irteten gabe”. Gurutze Gorrikoek laguntza hori eskaintzen dute, eta etxetara ere joaten dira adinekoei konpainia egitera, edo telefonoz deitzen diete, apur bat hitz egiteko. “Larrialdiei erantzuteaz gain, balio handiko lan txiki asko egiten ditugu”.

25. urteurreneko ekitaldia

Abenduaren 20an ospatu zuten 25. urteurrena, eta ekintza “xumea” egin zuten, nahiago dutelako erakundeak dituen baliabideak beharra dutenei laguntzeko erabilteza, ospakizun ekitaldian baino. Enrique Samaniego Gipuzkoako Gurutze Gorriko presidentea izan denari egin zioten omenaldia, besteak beste.

25 urte egin dituzte etenik gabe, eta eskerrak eman dizkiete urte hauetan guztietan lanean jardun duten boluntarioei, eta baita erakundeko bazkide direnei ere. Eta aurrera begira, gutxienez beste 25 urte bete nahi dituzte. Krisi egoera honetan gizarte arloa sustatzeko asmoa du aurrerantzean Elgoibarko Gurutze Gorriak.

Eguberriei errepassoa



Saridun guztiak udal agintariekin.



Igor Lizarralde (eskubaloia).



Ion Urbietta, Andoitz Agirregomezkorta eta Aitor Romera (mendizaletasuna).



Kimetz Bergaretxe (igeriketa).



Manex Bereziartua (saskibaloia).



Gorka Merino (tenisa).




Karakate jatetxea (pilota).



Koldo Baglieto (urpekaritza).



Sergio Fernandez (arku tiraketa). *Jaime Martinezek hartu zuen saria, Sergioren ordeez.



Iker Agirregomezkorta (karatea).

KIROL SARIAK 2014



CD Elgoibarri desfibriladorea eman zion Patronatuak.



Caldereria Egondo (atletismoa).



Pedro Beraza (judo).



Victor Galeano (wing tsun)



Xabi Alonso (futbola).



Imanol Garaizabal (Sari berezia. Raid probak)



Idoia Azpilikueta (areto futbola).



Juan Ramon Bellon (txirindularitza).



Pilar Arriola (sari berezia. Atletismoa).



Xabi Vazquez (motoa).



Gaizka Loiola (sari berezia. Eskia).



Arrieta eskopetak (ehiza).



Alberto Hernandez (sari berezia. Futbola eta berdintasuna).



Mikel Leon (xakea).



Xake txapelketa eta jaiotza mekanikoa



Patrice Etchegaray lapurtarrak irabazi zuen xake txapelketa. Goiko argazkian parte hartzaile guztiak. Eskumako argazkia: Juan Mari Osoro Katxoren emazteak eta alabak piztu zuten jaiotza mekanikoa.

Haur krosa Mendaron



Olentzero eta Mari Domingi Elgoibarren eta Mendaron







Olentzero eta Mari Domingi Elgoibarren eta Mendaron



Ezkerreko argazkian, Ruth Larrañaga, Markel Garate, June Collazo, Adrian Charles, Ana Zubiaurre eta Markel Garate Mendaroko ipuin-lehiaketako irabazleak, eta eskuinean, Paula Manzanos, Unai Alaia eta Garazi Ulazia postal lehiaketakoak

Eguberrietako bertso jaialdia



Gabon Zahar Feria



Joseba Insausti ordiziarrek irabazi zuen urteko gazta onenaren saria, Peio Rubiok jaso zuen saria barazkien atalean eta Mutrikuko Sagarmiña baserrikoek frutan sailean.

San Silbestre lasterketa Elgoibarren eta Mendaron

Arg.: Aitor



Arg.: Aitor





Erregeen kabalgata





BARREN.eus webgunea berritu dugu

Komunitatea atalean herriko elkarte eta norbanakoei emango diegu hitza

Euskararen Nazioarteko Egunean estreinatu genuen .eus dominioa, eta abenduaren 24an, webgune berritua argitaratu genuen. Guretzako egun berezia eta seinalatua da abenduaren 24a, izan ere, 1992ko egun horretan argitaratu baigenuen BARREN astekariaren 0 alea. Olentzeroren oparia izan zen, Olentzerok Elgoibarri eginiko oparia, hain zuzen ere, eta orain ere, Olentzeroren etorrerarekin batera berritu dugu webgunea.

Orrialde nagusia berrantolatu eta diseinua berritu dugu, ikusgarritasunaren, eskuragarritasunaren eta gaurkotatuen mesedetan. Lau atal nagusitan banatu da eduki guztia: aktualitatea, komunitatea, mediateka eta artxiboa. Herriarren parte-hartzeari indar berezia emateko, Komunitatea atala sortu dugu. *Barren.eus* osatzen dugun guztion taldea da Komunitatea. Komunitateko kideak izen-abizena duten erabiltzaileak dira, anonimoak ez diren taldeak, alegia. Benetako 'aurpegiak'. Norbanakoak edo elkarteak izan daitezke. Horiek, argazkiak, artikulak, iruzkinak eta bestelako edukia gehitzeko aukera izango dute *barren.eus* atariko Komunitatea atalean. Diseinu eta eduki guztia software librea erabiliz sortu dugu, informatika eta programazio kontuetan laguntza eta gidaritza eskaintzen digun Aitor Lauzirikari esker. Lerro hauen bidez BARRENEKO lantaldeak eskerrak eman nahi dizkio, borondatez egiten duten lan guztiagatik.

Era berean, gailu desberdinetan ondo ikusteko moduko diseinua egin dugu, Responsive Design-en teknikak erabiliz, izan ere gero eta zabalduago dago-eta sakeleko telefonoen eta tableten bidezko webguneetarako sarbidea.



Elgoibarko artxiboa

BARRENEN berebiziko garrantzia ematen diogu artxiboari: 1992tik hona argitaratu ditugun BARREN aldizkariaren ale guztiak webgunean ditugu, edonoren eskura. Bilaketak atalean erreferentzia bat idatziz gero, bilatzaile automatikoak argitaratutako ale guztietan eta 2006tik hona atarian argitaratu diren albiste guztietan, egiten du bilaketa. Hortaz, azken 22 urteotan gure herrian gertatu denaren berri izateko prest daukagu ataria.

‘La del manojo de rosas’ zartzueta eskainiko dute gaur zortzi Herriko Antzokian



San Anton jaien barruan, *La del manojo de rosas* zartzueta antolatu dute datorren barixakurako. Pablo Solozabal musikariak eginiko musika da. 1934an inauguratu zen estreinakoz obra hau, eta garai hartako Madrilén girotura dago istorioa. Hiri txikia zen orduan, denek ezagutzen zuten elkar eta kalean ematen zituzten orduak. El manojo de rosas izeneko lora-dendan Ascension izeneko neska egiten du lan, eta Joaquín eta Ricardo haren maitasuna bereganatzen saiatuko dira. Sarrerak 10 euro balio ditu, eta www.kutxabank.es bidez salduko dira. Kultur Etxean sarrera gutxi batzuk egongo dira, eta Internetez saltzen ez direnak Herriko Antzokiko lehiatilan salduko dira. Ikuskizuna 20:30ean hasiko da.

‘Antonia’s line’ filma landuko dute gaur, bideo forum saioan

Haizea emakume taldeak bideo forum saioa antolatu du gaur gaue-rako. *Antonia’s Line* Herbehereetako filma ikusiko dute gaurkoan. Antoniak 90 urte ditu, eta Herbehereetako baserri batean bizi da, lasaitasunean. Ohean dagoela, bere bizitzaren errepaso egingo du, eta Bigarren Mundu Gudako garairaino joango da, eta ondorengo 50 urteak kontatuko ditu. 21:30ean hasiko da filma, eta Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da.

Gaur jokatuko dira San Anton txapelketako bigarren finalerdiak

Finala hilaren 16an jokatu da Ikastolako frontoian

Gaur gauean zehaztuko da San Anton pilota txapelketako finala zeintzuk jokatu-ko duten. Joan zen ostiralean jokatu ziren lehenengo finalerdiak, eta gaur jokatu-ko dira bigarrenengoak. Lehenengo finalerdian, Ugalde eta Aldape bikote oiartzuarra sailkatu zen finalerako, seniorretan Atxotegi eta Bolinaga bergararrei 22 eta 19 irabazita. Promesetan, berriz, Goenatxo eta Juaristi bikote azkoitiarra nagusitu zen. 22 eta 10eko emaitzaz irabazi zioten azkoitiarrek Otadui berriztarrak eta Santamaria soraluzetarrak osatutako bikoteari. Gaur, jokatu-ko dira bigarren finalerdiak, Ikastolako frontoian. Promesetan, Hernandez eta Flores oiartzuarrek eta Chiapuso eta Zaldua donostiarrak lehiatu-ko dira, eta seniorretan, Dorronsoro eta Murgiondok osatutako bikotea ariko da batetik, eta Arteaga eta Imaz, bestetik. Finala San Anton bezperan jokatu-ko da, hilaren 16an.

Urtarrilaren 25ean jokatu-ko da Juan Mugerza Nazioarteko Krosa

Juan Mugerza Nazioarteko Krosak badu kartela. Urtarrilaren 25ean jokatu-ko da, eta aurtengoa 72. edizioa izango da. Hain justu ere, 72 urteko historia luze eta emankor horri eskaini diote aurtengo kartela. Juan Mugerza Nazioarteko Krosa Espainiako Atletismo Federazioaren egutegiko proba zaharrena da, eta gaur, nazioarteko atletismo federazioen egutegian sartuta dago. Egutegi horretan, urtero, hamabi proba zehazten dira. Elgoibarko krosak EAA kategorian (European Athletics) lortu zuen 2012ko denboraldian, eta hiru denboralditan kategorian horretan mantendu ostean, iaz IAAF kategorian sartu zuten. IAAFe-ko hamabi proben artean, estatu mailako hiru kros daude (Atapuerca, Italica eta Elgoibar) eta Europako beste bi: Nairobi (Kenya) eta Chiba (Japon).

Espainiako Ehiza Xehe txapelketako finalerako sailkatu da Arkaitz Egaña



Arkaitz Egaña ezkerrean.

Espainiako Ehiza Xehe txapelketako finalaurrekoa jokatu zuten zapatuan Castillejo de Robledon (Soria) eta Arkaitz Egaña ehiztari elgoibartarrak bigarren egin zuten. Sailkapen horri esker, Espainiako txapelketako finala jokatu-ko du urtarrilaren 17an, Toledon.

Lizarpe Mendi Kluba sortu dute Mendaron, eta haren babesean, Lizarpe lasterketa taldea

Trabesiako probetan eta mendiko lasterketetan bakarka zein taldeka lehiatzen diren korrikalariei laguntzeko sortu dute hein batean Lizarpe lasterketa-taldea, baina baita, Mendaroko Kilimon Trail mendiko lasterketa bera indartzeko ere, Euskal Herriko nahiz nazioarteko txapelketetako proba puntuagarria izateko mendiko klub baten babesa behar duelako.

Bost lagunek osatu dute Lizarpe Mendi Kluba: Iosu Juaristi izango da presidentea, Iñigo Lariz presidenteordea, Ioritz Konde idazkaria, Gotzon Zulaika diruzaina eta Ander Zulaika batzordekidea edo bokala. Mendian lehiatu nahi dutenei bidea erraztu nahi die Lizarpe Mendi Klubak. Horretarako, mendiko federatuen txartelak egingo dituzte, FED-ME Espainiako Mendizale Federaziokoa barne, eta kirol-arropa ere sortu-ko dute kirolarientzat. Lizarpe Mendi Klubak bi bide eman ditu harremanetarako: Lizarpemk@gmail.com posta elektronikoa eta LizarpeMK (Facebook).



Kirol Patronatuak desfibriladorea eman dio CD Elgoibar Klubari

Kirol Patronatuak desfibriladorea bat eman dio CD Elgoibarko Klubari Mintxetan jokatzeko dituen partidetarako. Berez, Mintxetako udal instalazioetan badago bat –Olaizaga kiroldegian ere badute beste bat–, baina futbol partida asko lan ordutegiz kanpo jokatzeko direla-eta, Kirol Patronatuak beharrezkoa jo du Klubak bat izatea.

LANA

ESKAERA

- Emakumea edozein lan egiteko prest.
☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko
☎ **639 523 390**
- Emakumea lan bila. Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Gauzez edo orduka lan egiteko prest.
☎ **631 417 995**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatría laguntzaile ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**

BESTELAKOAK

- Kyocera FS-C5100DN inpresorarentzako toner magenta eta horia salgai. Berriak, erabili gabeak. Bakoitzak 50 euro.
☎ **943 744 112**
- Canon laser inpresorarentzako EP-22 tonerra salgai 50 euroan. Berria, erabili gabe. Inpresora hauentzat balio du: LBP-250 / 350 / 800 / 810 / 1110 / 1110SE / 1120.
☎ **943 743 704**
- Kartera bat aurkitu genuen abenduaren 24an, Kalegoen plazan. Elgoibarko Izarran dago.
☎ **943 741 626**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Jakin nahiko nuke obra berri bat zer den eta zein baldintza bete behar dituen Jabetza-Erregistroan inskribitu ahal izateko

Obra Berriaren Deklarazioa eskritura bat da funtsean, zeinean lursail baten deskribapena aldatzen den, egin den obra berria jasota gera dadin. Eskritura hori emateko, ezinbestekoa da Obra Baimena izatea eta baimen hori eskatu ahal izateko aurkeztu zen proiektua aurkeztea. Horrezaz gain, obra zuzendu duen arkitektoak honako kontu hauek ere ziurtatu behar ditu.

1. Obra bukatu bada, tekniko horrek ziurtatu behar du obra baimena eskatzeko erabili zen proiektuaren arabera egin dela eta eskrituran jasotakoa bat datorrela egindako lanarekin eta aipatutako proiektuarekin.

2. Obra egiten ari badira, teknikoak ziurtatu behar du eskrituran jasotako deskribapena egiaz hala betetzen dela eta bat datorrela proiektuan jasotakoarekin.

Bi kasuetan, teknikoak notario aurrean agertu behar du eta han sinatu behar ditu ziurtagiriak eta dagokion eskritura. Baimen edo proiekturik gabe egin diren obretan, arau bereziak aplika daitezke.

AHOLKUA: Obra Berriaren Deklarazioa obra horren balioaren %0,5eko egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari lotua dago.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Sare**, urtarilaren 6an 6 urte bete zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Unaitxoren partez.




• Zorionak, **Elkain**, urtarilaren 5ean 6 urte bete zenituelako. Bersarkada bat, eta muxu asko, etxekoen partez.



• Zorionak, **Aner**, urte-txoa bete duzulako. Patxo bat, aita, ama eta Alainen partez.




• Zorionak, **Iker**, familiakoen eta bereziki, Landerren partez. Urtarilaren 11n, 3 urtel.



• Zorionak **familiako printzesari!** Ondo-ondo pasa! Zorionak, **Ihintza**. Muxu handi bat Elgoibarko sorginen partez.



• Zorionak, **Jon**, 9 urteko mutil handia! Muxu asko, etxekoen partez.



• 7an, 6! Bat, bi, hiru, lau, bost eta sei! Zorionak, **Elur**.




• Zorionak, **Felisa eta Flora**, urtarilaren 6an 97 urte bete dituzuelako. Familiakoen partez.



• Zorionak zuen urrezko ezteingatik! Oso ondo pasatu genuen.



• Zorionak gure etxeko **printze eta printzesari**, abenduaren 22an 4 urte egin zituztelako, familiakoen partez, bereziki aittittaren partez. Muxu potolo bana.




Ludotekako bazkide izateko bigarren epea zabalik.
 Urtariletik uztaiera 30€. Famili ugarien kideek eta famili ez ugarien bigarren seme-alabak %30eko deskontua (21€). Gizarte zerbitzuetako zenbait programen erabiltzaileek %70eko deskontua (9€).
 Informazio gehiago Ludotekan.

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena. Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.
 Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.
 Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.
 Interneten bereizten gaituen puntua.
 Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.
 Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.
 Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena.
 Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria



gure domeinua

9 barixakua

Kirola

22:00 Pilota

San Anton pilota txapelketa, Ikastolako frontoian.

Kultura

21:30 Bideo Forum

Antonia's Lane filma ikusiko dute, eta Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16 barixakua

Zartzueta

20:30 'La del manojo de rosas'

Ozenki konpainiak taularatuko du, Herriko Antzokian.

Musika

23:00 Kontzertua

Sinuosek antolatuta, Iban Urizar elgoibartarrak kontzertua eskainiko du Kultur Etxeko sotoan.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
9 Etxeberria 10 Etxeberria 11 Etxeberria 12 Yudego 13 Oruesagasti 14 Barrenetxea 15 Ibañez 16 Garitaonandia	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larraldietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA
(HERRIKO ANTZOKIAN)



«Interstellar»

9, barixakua: 22:15
10, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
11, domeka: 19:00
12, astelehena: 21:30

«Mortadelo y Filemón

contra Jimmy el cachondo»
11, domeka: 16:30

BIZKOR BIZIKLETAK



- Bizikleten salmenta eta konponketa

- Osagarriak eta arropa



943 05 50 49

Uparitzaga kalea 8, ezker-behea Elgoibar (Gipuzkoa)

bizkorbizikletak@hotmail.com



Eskertzak eta urteurrenak



ESKERTZA

ISABEL LINARES LINARES

2014ko abenduaren 27an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




I. URTEURRENA

GUILLERMO REGIL IRURETA



*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.*

2014ko urtarrilaren 9an hil zen, 83 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 10ean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA

KATALINA MUGUERZA LEYARISTI



*Nahiz eta bihotza geldirik izan
eta begiak itxirik
guretzako orain eta beti
iraungo duzu bizirik.*

2015ko urtarrilaren 1ean hil zen, 98 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Eskerrik asko!

Iban Urizar / Sinuose / Uxue Alberdi / Jasone Osoro / Maite Rementeria / Iñigo Lariz / Jesus Mari Makazaga / Unai Villena / Edurne Askasibar (Bitxi Bitxi) / Txomin Mujika / Napoka Iria / Emilia Nogales / Andres Alberdi / Joxe Mari Agirretxe "Porrotx" / Zaloa Arnaiz / Danele Sarriugarte / Izaro Etxegibel / Irati Agirreazaldegia / Zuhaitz Gurrutxaga / Felix Etxeberria / Amaia Erkizia (Magi Bitxiak) / Jon Gerrikabeitia / Jon Gurrutxaga / Jairo Berbel / Maite Maiora / Lurdes ileapaindegia / Soraya estetika / Garbiñe estetika / Oin Berri podologia zentroa / Beitia Arriola hortz klinika / Aldaz hortz klinika / Softlan informatika / Mapfre aseguroak / Uzuri optika / Egur / Haritz euskal dantza taldea / Ikasi mobilteknika / Zezenbide autoeskola / Azkue argazki denda / Soarte argazki denda / Leigar etxetresna eta elektrodomestikoak / Bire etxetresna eta elektrodomestikoak / Garate jantzi denda / Ostruka jantzi eta oinetako denda / Moma jantzi denda / Iriondo kirolak / Skandalo mertzeria / Maidagan jantzi denda / G&M jantzi denda / Agirre sastreria / Lagunak koltxoi denda / Sara jantzi denda / Kontxi haurren jantzi denda / Astigarra kirolak / Luvik oinetakoak / Pitxintxu / Gorostiza liburu denda / Eroski / Ziarda harategia / Arantza eta Marian fruta denda / Txilarre Barazkiak / Amaia fruta denda / M^a Angeles fruta denda / Zabala fruta denda / Caramel goxo denda / Amagoia goxo denda / Armueta harategia / Arkupe okindegia / Doña Mercedes / Eizagirre okindegia / Fotero okindegia / Ibarrenea okindegia / Mari harategia / Patxi harategia / Lerun jatetxea / Iturri taberna / Orbea Taberna / Iriondo taberna / Lanbroa taberna / Tantaka taberna / Mahats ardandegia / Usua kafetegia / Belaustegi jatetxea / Ibai-

Ondo erretegia / Gautxo jatetxea / Gabi jatetxea / Ilunpe taberna / Jose Mari

Ondarza / Altzola Berazeta baserria / Muruamendiaraz gozotegia /

Txarriduna jatetxea / Urratsak oinetako eta jantzi denda / MGS mutua /

Giauto karrozeria / Euskoauto karrozeria (Toyota) /

Osoka / Nu Van / Markel Bergara / Xarlem

Creations / Zu+Ni / 10 bai / Mekanosa / Mausitxa /

Pello Arrieta eta Javier Elorza / La Caixa / Herri

Eskola / Kala loradenda / Sahatzu harategia / Jose

Antonio ile apaindegia / Ikus optika / Yudego farmazia

/ Dori harategia / Gobike bizikleta denda / Unanue mer-

tzeria / Ecenarro mertzeria / Beristain logistika banaketa /

Viento sur gastroteka / Laboral banka seguroak / Morkaiko

mendizale elkarteak / Beitia Arriola fisioterapia / Javi Muñoz /

Salento jatetxea / Sigma jatetxea / Karkizano mertzeria / Evoka oinetako denda /

Merino konponketak / Oinez oinetakoak / Ametsa taberna / Jai alai taberna / King

Kong taberna / Malape taberna / ElgoibART (E. Arrillaga) / U. arrieta / Imanol

Agirretxe / Bera Bera eskubaloi taldea / Alcorta F.G / Gemma Monreal / Zero

Zabor ingurumen babeserako elkarteak / Sanlo E.K.T / Fadek ile apaindegia / Alire

/ Urnobotza / Otzak kafetegia / 40-15 Tennis elkarteak / Patxuko Nice / Masumi's arro-

pa denda / Iraola Zialtzeta / Landa harategia / Domiko harategia / San Frantzisko

estankoa / Castrillejo estankoa / Mintxeta atletismo taldea...

Elgoibarko Izarraren
TONBOLARAKO
opariak emateagatik

